TXOSTENA

Hala xedatzen baitu 133.1 artikuluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat gauzatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkaritza handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.

c) Arauaren helburuak.

d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dena dela, artikulu horren 6. apartatuak ezartzen du halako kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau-proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebehar garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen aspektuak partzialak badira.

Ildo horretan, kontuan hartu behar da 2021eko zergaldiari dagozkion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren autolikidazio-ereduak onetsi, horiek aurkezteko eta diru-sarrera egiteko arauak eman, eta bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzen dituen foru aginduaren proiektua bat datorrela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluaren 6. apartatuarekin, zeinak Foru Sektore Publikoaren hain esangura duen ez aipatze horri buruzko Foru Legearen 133. artikuluko 6. Apartatuaren edukiarekin hitzez hitz, proiektua egin aurreko kontsulta publikorik ez egiteko baldintzak betetzen baitira: arau-proposamenak ez du eragin esanguratsurik jarduera ekonomikoan, eta arautzen dituen aspektuak partzialak dira arlo horretan..

Aipatutako foru aginduaren proiektua Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean argitaratuko da, eta Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian, herritarrek horren berri izan dezaten.

Iruñean, 2022ko otsailaren 18an.

*Elektronikoki sinatu du dokumentu hau Cristina Sarasa Villaverdek, Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendariak.*